



Emakumeak Indian

Garapenaren eragile

Mujeres en India

MOTOR de desarrollo



ALBOAN

DALIT ETA ADIVASI EMAKUMEAK

Kasta-sistema

Lanaren banaketaren fundazioa

Indiako kastei prestigio jainkotiarra eman ziena Manu erregea izan zela diote.

Haren ahotik, apaizak sortu ziren. Haren besoetatik, erregeak eta gerlariak. Haren izterretatik, merkatariak. Haren oinetatik, mirabeak eta artisauak.

Eta orduz geroztik piramide soziala eraiki zen, zeinak Indian hiru mila solairu baino gehiago dituen.

Bakoitza jaio behar duen lekuan jaiotzen da, egin behar duena egiteko. Zure sehaskan zure hilobia dago, zure jatorria zure patua da: zure bizitza zure aurreko bizitzek merezi duten saria edo zigorra da, eta oinordetzak zure lekua eta zure eginkizuna ezartzen du.

Manu erregeak jokabide txarra zuzentzea gomendatzen zuen: beheko kastako pertsona batek liburu santuetako bertsoak entzuten baditu, berun urtua botako zaio belarrietan; eta errexitatu egiten baditu, mihia moztuko zaio. Pedagogia horiek ez dira aplikatzen gaur egun, baina oraindik ere maitasunean, lanean edo beste edozertan bere lekutik ateratzen denak jendaurreko eskarmentuak jasateko arriskua du, eta eskarmentu horiek hil egin dezakete edota hilzorian utzi.

Kastarik gabekoak, bost hindutatik bat, azpiena dagoen mailaren azpitik daude. Ukiezinak deritze, kutsatu egiten dutelako: madarikatuak madarikatuen artean, ezin dute besteekin hitz egin, ezta horien bideetan barrena ibili edota horien edalontziak nahiz platerak ukitu ere. Legeak babestu egiten ditu, errealitateak kanporatu egiten ditu. Gizonezkoak edozeinek umiliatzen ditu; emakumezkoak edozeinek bortxatzen ditu, eta kasu horretan bai direla ukigarri ukiezinak izenekoak. 2004ko amaieran, tsunamiak Indiako kostaldea eraso zuenean, ukiezinak arduratu ziren zaborra eta hildakoak biltzeaz.

Beti bezala.

Eduardo Galeano- Espejos, una historia casi universal.



Beheko kastetako emakumeek gabetasunak eta abusuak jasaten dituzte, beren herrikideak diren emakumeek baino gehiago. Emakumeak azpikontinentean bizi dituen bidegabekeria-egoerei gaineratu behar zaie emakume horiek baliabide gutxiago dituztela eta beheragokotzat jotzen dituztela. % 90 Indiako landan bizi dira eta % 80 analfabetoak dira.



Adivasi pertsonak oso talde heterogeneo baten barnean daude, zona bakanetan bizitzeko erlijioso eta kulturean asimilatu ez ziren etnia ugari biltzen dituen taldean, eta beraz kasta-sistematik kanpo geratzen dira eta hinduen komunitateak beheragokotzat bezala tratatzen dituzte. Independentziaren ondoren 600 talde baino gehiago daude onartuta, eta herriko guztizko biztanleen % 7-8 osatzen dute.

Kastarik gabeko taldeak edo dalitak hinduismoaren kasta-sistemaren esparruaren barnean hartuta daude, baina maila-zerrendaren lekurik baxuena okupatuz.

Ildo horretan, emakume indiarra familia-ekonomiaren funtsezko zutabea den arren, bere papera ez da sozialki balioesten eta gizonek bigarren mailako herritartzat jotzen dituzte. Egoerak okerrera egiten du adivasi eta dalit emakumeen kasuan, emakumeek diskriminazio bikoitza jasaten dutelako, batetik generoagatik eta bestetik kasta baxu eta baztertu bateko kideak izateagatik. Beren estutasunak ez dira soilik beren pobrezia, estatus ekonomikoaren edo hezkuntzarik ezaren arrazoia, izan

ere, goiko kastek beheko kastengan eragiten duten esplotazio gogorraren zuzeneko emaitza ere badira.

Dalit edo adivasi emakumeen kasuan, baliabide ekonomikorik ez dutenez kasu askotan beren senarrek bezala lan-erantzukizunak izatera behartuta daude, etxe barruan betetzen duten funtsezko paperaz gain. Hala eta guztiz ere, beheko kasten lan-baldintza gogorrek ez dute lan hori askapen- edo emantzipazio-elementu bihurtzen, izan ere, ia esklabutzakoa den posizio hori areagotu egiten baitute.



Indiako gizartearen testuinguruan emakumeek aurre egin beharreko arazoetako batzuk honako hauek dira:

- **Ezkontza goiztiarra.** Horri lotuta esan beharra dago Indiako legeriak debekatu egiten duela, baina gertatzen jarraitzen du. Haur-ezkontza debekatzeko 2001eko Legea Ezkontza Hinduaren 1955eko Legeari, Ezkontza Bereziko Legeari, Ezkontza Parsi-aren Legeari, Dibortzio Legeari eta Prozedura Kriminaleko Legeari egindako zuzenketa baten zati da. Ezkontza hinduaren legeak emakume gazte, nerabe edo hurrei heldutasunera ez badira iritsi haur-ezkontza bati uko egiteko eskubidea ematen die, ezkontza-eginbideak bete badira nahiz bete ez badira, eta ezkontzeko gutxieneko adina 15 urte direla ezartzen du. 1976an legea mugatu egin zen emakume gazte baten ezkontzarako adina 18 urtera eta gizon gazte batena 21 urtera igotzeko. Haur-ezkontzaren kasuan, ezkonberrien adinari buruzko kontrol zorrotzik ez da egiten lege batek debekatu egiten duen arren, baimendutako adinetik beherako ezkontza bat poliziari salatzen prozesuaren moteltasuna eta kostua direla medio. UNICEFen arabera, ezkontza goiztiarreko kasuak Indiako landa-eremuan % 56 dira eta hiri-eremuan % 29. Hala eta guztiz ere, familia indiar askok uste dute alabak lehenbailehen ezkontzen badira beren senarraren familiaren bizimodu berrira ere lehenago ohituko direla.



- **Ezkonsaria (dowry) ordaintzea.** Indiako legeriak kontzeptu horri dagokionez egiten duen debeku espresa dagoen arren, debekua Zigor Kodean 60ko hamarkadan sartu baitzen (Ezkonsaria Debekatzeko Legea, 1961ekoa), praktikan emakumeentzako arazo handia eta beren desberdintasun-egoeraren arrazoi nagusietako bat izaten jarraitzen du. Ezkontza egin baino lehen, bi familiek trukatu beharreko kopurua eta senarra izango denak bere negozio propioa hasteko erabiliko duen diruaren ordainketa negoziatzen dute. Emaztegaiaren familiaren gaineko presioa ez da hor amaitzen; hainbat kasutan, ezkontza egin ondoren senarrak eta bere familiak diru gehiago eskatu izan dute. Hainbat kasutan emakumeak eraso egiten dituzte eskari horri ezin diotelako erantzun. Gaur egun, ezkonsariarengatiko heriotzen indizea bizkor biderkatzen ari da, eta agerian uzten du legeak ez duela eraginkortasunik.

- **Gizonezkoa lehenestea.** Indiako legeriak esparru horretan ere aurrerapenak egin ditu, baina egia esan, aurrerapen horiek hobeto islatzen dira paperean benetako egoeran baino.

Sortu aurreko eta jaio aurreko diagnostiko-teknikei buruzko 2003 Legea. Umea jaio aurretik bere sexua zein den esatea debekatuz, nesken hilketa murriztu nahi da. Prebentziorako erregulazioa 1994an hasi zen. Indiaren Independentziaz geroztik gizarte-gaitz hori kontrolatzen saiatu dira, umearen sexua esateko debekua bezalako legeen bitartez. Beraz, oraindik ere sexuaren arabera abortu selektiboak egiten dira, eta haur-hilketak bizitzako lehen egunetan gertatzen dira, neska dela ikusten dutenean. Jaioberrien (aste betetik beherakoak) heriotza, eta neska abandonatzea edo gutxi zaintzea, dieta egoki baterako aukera kenduz, maiz gertatzen dira. Familia-osasunari buruzko inkesta nazionalak, 1995ean egin zenak, adierazi zuen jaioberrien aldi gertatzen diren heriotzak % 13 gehiago direla nesken kasuan, eta haurren heriotza-tasa % 43 handiagoa da neskenentzat mutulentzat baino.

- **Alargunaren marjinazioa.** (ikus SARI)



Emakumeak Indian
Garapenaren eragile
Mujeres en India
Motor de desarrollo

